

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Erdi Aroko hirigunearen birgaitze integraturako plan bereziaren zortzigarren xedapen aldakuntzari, zein Gasteizko Arkupeko ibilbideko 10.ean dagoen lursailaren erabilera bereizgarriari baitagokio

Hauxe ebatzi zuen Udalbatzak 2015eko azaroaren 27an:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren zortzigarren xedapen aldakuntzari, zein Gasteizko Arkupeko ibilbideko 10.ean dagoen lursailaren erabilera bereizgarriari baitagokio.

Erabaki-proposamena

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2012ko ekainean Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren xedapen aldakuntzarako egin duen proiektua ikusi da. Horren bitartez, Gasteizko Arkupeko ibilbideko 10.ean dagoen lursailaren erabilera bereizgarria aldatuko da.

Proposatzen den xedapen aldaketak, dokumentazio tekniko eta memoriarekin bat, Arkupeko ibilbideko 10.ean dagoen lursailaren erabilera bereizgarria aldatzea du xede, hartara higiezin horrek egun duen "sorospeneke ekipamendu komunitarioa" erabilera bereizgarria aldatu, eta "ekipamendu anitzetarako aukera duen etxebizitzetarako" erabilera izatera pasako da, hori guztia etxebizitzetarako ez diren erabilera bereizgarritako lursailen zerrendan ageri den akats bat zuzentze aldera, izan ere indarrean dagoen planeamenduko dokumentazio grafikoan Arkupeko ibilbideko 10.eko lursailak proposatzen den erabileran jasoa ageri baita.

Proposamenak Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren xedapen aldaketa bat du xede, hain zuzen ere hirigintza arauen 68. artikulua "erabilera bereizgarri" aldatzea da; horren 1.3 artikulutik ("sorospenetarako ekipamendu komunitarioa") kendu egingo da Arkupeko ibilbideko 10.aren erreferentzia, eta artikulua bereko 2. atalean ("ekipamendu anitzetarako aukera duen etxebizitza erabilera") sartuko da, baina mantendu egingo da 4. kalifikazio-plano xehatua, izan ere lursail hori BIPBko hirigintza araudiko OR1-E ordenantzak xedatutakoak arautuko baitu.

Proposatutako aldakuntzarekin batera aurkeztu den dokumentazioan jaso egin dira aldaketaren aurrekariak, helburua eta ekimena, haren beharra zein egokieraren justifikazioa, baita aldaketarik ez duten kalifikazio xehatuen planoak ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, Erdi Aroko hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 8. aldakuntzaren proiektua onetsi eta aldakuntzari hasierako onespena eman zitzaion. Hogei egunez jarri zen jendaurrean, 2015eko abuztuaren 10eko ALHAOn (93. zk.) eta 2015eko uztailaren 31ko Diario de Noticias de Álava egunkarian iragarkiak argitaratuta, haien interesak eragiten zituela uste zuenak egoki jotzen zituen alegazioak aurkez zitzen.

Dosierra erakusgai egon den epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari zein Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari jakinarazi zitzaion, egoki diren

txostenak eman zitzaten. Haiek ez diote inolako eragozpenik jarri Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren zortzigarren aldakuntzaren dosierrari, eta hala dago jasota Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Euskal Kultur Ondarearen Zentroak 2015eko irailaren 4an emandako txostenean eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Etxebizitza Zuzendaritzak 2015eko urriaren 7an emandako txostenean.

Hirigintza eta Plangintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren Plan Partzialerako proposatu den zortzigarren aldakuntzaren aldeko txosten juridikoa eman zuen, 2015eko urriaren 8an.

Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Udal Plangintza Orokorrean finkatua dago Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako 1. Plan Bereziari dagokion esparruaren fitxa.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketan erregimen juridikoa, eta orobat zehazten du birgaitzeko jarduketan kontzeptua.

317/2002 Dekretuaren 10. artikulua arautzen ditu birgaitze plan bereziak, eta plan berezien baitako motetako bat direla adierazten, luraren erregimenaren eta hiri antolakuntzaren inguruan indarrean dagoen araudiaren ildotik, eta delako legean eta hori garatzen duten araudietan nahiz horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuak daudela, baita dekretuan bertan berariaz adierazitakoari ere.

Dekretu horren beraren 12. artikulua, plan bereziak taxutu, izapidetu eta onesteko prozedura arautzen duelarik, hauxe xedatzen du: birgaitze integraturako plan bereziak behin betiko onetsi aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailaren arauzko txostenak beharko dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onespina.

Aipatutako 2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalak planeamenduen aldakuntza eta berrikuspina arautzen du eta konkretuki 104. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko plan mota bera erabili beharko da, baita zehaztapen horiek onesteko jarraitutako prozedura bera baliatua ere.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onespina ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorriz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriekin haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onespina ematea Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak osatutako Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren zortzigarren aldakuntzari. Horren bitartez, Arkupe ibilbideko 10.ean dagoen lursailaren erabilera bereizgarria aldatuko da eta egun duen "sorospeneko ekipamendu komunitarioa" erabilera aldatu, eta etxebizitzetarako erabilera izatera pasako da baina ekipamendu anitzetarako baimena izango duena.

2. Erabaki hau argitaratzea, ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarierako batean iragarkiak jarritz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

HIRIGINTZA ARAUDIA

Ondasun higiezinak Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hirigintza araudian jasotako OR1-E ordenantzak ezarritakoak arautzen jarraituko du Mantendu egingo da 4. kalifikazio-plano xehatua

68. artikulua Erabilera bereizgarriak. Lur-zatiei dagokienez etxebizitzetarako izango da, honako hauetan izan ezik:

1. Ekipamendu Komunitarioa.

1.1. Hezkuntzako

- Eskola kalea, 12 eta 14 (Ramón Bajo Ikastetxea)
- Luis Aranburu Udal Musika Eskola (Hedegile kalea 106)
- Aurtxaro Haurtzaindegia (Santa Maria Kantoia z/g)

1.2 Administratiboa

• Errementari kalea 30-32, eta behe-solairua eta 1. solairuaren zati bat Zapatagile kaleko 33 zk.an

- Goiuri jauregiko klaustroa (Aihotz plaza)
- Udaletxea (Espainia Plaza, 1 zk.)
- Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia, SA (Espainia Plaza, 8 ber).
- Etxanobetarren etxea Santa Maria kalea, 11
- Errementari kalea, 96-98 (Behe-solairuak)

1.3 Laguntza-erabilera

- Hedegile kalea, 54 eta 56 (Casa Aurora handitzea)
- Hedegile kalea, 55 eta 57 (Casa Aurora Tutoretzapeko Apartamentuak)
- Hedegile kalea, 58 (Casa Aurora)
- Arkupeko Ibilbidea, 11 (Arkuetako Egoitza)
- San Pedroko Pasabidea 5 eta 7 (Behe-solairuak) San Pedro Gizarte Etxea

1.4. Erlijio-erabilera

- Santa Maria Katedrala eta Santa Maria Eliza
- San Pedro eliza
- San Migel eliza
- San Bizente eliza
- Gurutze Santuaren Komentua
- San Ildefonso Kapera

1.5. Kultura- eta elkarte-erabilerak

- Doña Otxanda Dorrea (Natur Zientzien Museoa)
- Farolen Etxea (Zapatagile, 35)
- Landatxoko Gizarte Etxea (Santa Maria, 4)
- Montehermoso Jauregia (Frai Zacarias Martinez kalea, 2)
- Antzinako Ur Depositua (Frai Zacarias Martinez kalea, Eskola Kalea)
- Bendaña Jauregia eta Aiztogile kalea 54 ber eta Arkeologia Museo berria.
- Errementari kalea, 82 (Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen Museo Etxea)

1.6. IKP Kultura- eta erlijio-erabilera

- 4. Etxadia
- Hedegile kalea 116 (Arkeologia Museo zaharra)
- Andatarren dorrea

1.7. Ekipamendu anitza

- Musika eta arte eta lanbideen Eskola Zaharrak (Eskola kalea, 10)
- Frai Zacarias Martínez kalea, 3 (Irakasle Eskola zaharra)
- Hedegile kalea, 141 (Maturana-Berastegi Jauregia, Fresnoko M.).
- San Bizente Paulekoaren kalea, 2 – 15. Etxadia (Umezurtz Etxe Zaharra)

2. Etxebizitzetarakoa, Askotariko Ekipamendu baimenduarekin

- Hedegile kalea, 108 (Osasun Zentroa)
- T Etxadia
- Aiztogile kalea, 24 (Sokaren etxea).
- Hedegile kalea, 33
- Arkupeko ibilbidea, 10

3. ...

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 4an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE